

**ZENBAT BURU**

Lutxi Arregi,

**ERREP@ VMJEA**

Biar-Dana elkartearen

50. urteurrena

**GEHIGARRIA**

**TxikiBARREN**

**KIROLA**

47 domina banatu

zireyirorpikoren

Finlistalgunean

# BARREN

2000ko ekainaren 9a  
V111. urtea - 324. zkia

E L G - O I B A R K O A S T E K A R I A

BIAR-DANA



Biar-Dana Elkarte  
**50 urte musikari lotuta**

“Zelako musikia, halako dantzia” (Esaera zaharra)



**ELGOIBAR B.H. Institutua**

**2000/2001**



ARREJRRE INSMUTUA IDBEI-ESO)

San Roke, 11

EZENARRO INSITTUTUA Ikixilergoak - F.P./LH.)

Arregitorre, 2

Tel. 943 74 80 19

Faxa. 943 74 82 30

E-posta: [bulegoa@elgoibardar.tiezitek.net](mailto:bulegoa@elgoibardar.tiezitek.net)

web: [www.elgoibar.hezitek.net](http://www.elgoibar.hezitek.net)



**ERDI MARAKO HEZKUNIZ ZIKLOAK** (eredua)

Merkataritza

Ibilgailuen Elektromekanika

Karrozeria

Erizaintza Laguntza Osagarriak

**GOI MARAKO HEZKUNIZ 7JKLOAK** (ei, D eredua)

Administrazioa eta Finantzak

Automozioa

Ingurugiro Osasuna

Izen ematea: Ekainaren 1etik 12ra arte.

Sarrerako frogarako izena emateko epea: Maiatzaren 12ra arte



**83 profesional.** Ingeniariak, kimikoak, fisikook, bickgeak, erizainak, ekonomilariak, informatikoak, historiadoreak, filosofoak, matematikoak, teknologoak, filologoak, maisu-maistrak, psikologoak, bulegariak, konserjeak, Elgoibar, Mendaro, Deba, Eibar eta inguruko gazteen prestakuntza jor-roizen hainbat eta hainbat urtetan.

**NATUR eta OSASUN ZIENTZIEN BATXILERGOA**

eZientifiko-Tekniko aukera      • Osasun aukera

**GIZA eta GIZARTE ZIENTZIEN BADILERGOA**

■ Gizarte Zientzien aukera      ■ Humanitate aukera

**TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA**

# DAL E USKALTEGIAK

## 2000ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK



**Egskailgirkke pirstl  
iVerene4 en egskercil**

**EGA azterketa prestatzeko ikastaro berezia**

- \* Ekainaren 26tik uztailearen 21era eta irailaren 4tik 8ra.
- \* 4 ordu goizez.
- \* Prezioa: 15.000 pta.
- \* Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 8.000 pta.

**Euskalduntze mada guztiak**

- \* Ekainaren 26tik uztailearen 21era.
- \* **5 ordu goizez.**
- \* Prezioa: 15.000 pta.
- \* Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 8.000 pta.

**Barnetegia Zerainen**

- Gipuzkoako Udal Euskaltegiok antolatuta.
- \* Uztailearen 1etik 15era, astebukaerak barne.
- \* Prezioa: 38.000 pta.

**Matrikulaidia**

Ekainaren 1etik 23ra.



Arebobaleta Arrasate Azpeitia Beasain  
Bergara Deba Eibar Elgoibar Errenteria  
Eskoriatza Hernani Hondarribia Iruin  
Lasarte-Oria Legorri Mutriku Pasaia  
Telosa Ureba Zarautz Zumarraga

**DEBABA UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA**

**ELGOIBAR:** Natarroa Enparantza,2 - Tel. 943 74 27 31 - E-posta: [elgoi.eLskal@udalgipuzkoanet](mailto:elgoi.eLskal@udalgipuzkoanet)

**MUTRIKU:** Txurruka Enp,arantza, 1 Tel. 943 60 30 94 - E-posta: [eusk.mutriku@udalgipuzkoa.net](mailto:eusk.mutriku@udalgipuzkoa.net)

**DEBA:** I far-kale. 12 Tel. 943 19 22 36



LUTXI ARREGI

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## eta ikasi

**N**atxok kontzertuetan zenbatzen zue-  
nean, zenbaki bat ez zuen inoiz  
esaten, zenbakia jendeak oihuka-  
tzen zuen. Ondoren bere erantzuna zeto-  
rren. Errima.

Espainiako telebista pribatu batek zen-  
baki hori izen bezala erabiltzen du. Duela  
gutxi, berriz ere agerian gelditu da telebista  
honetako zuzendariak oso gustuko dutela  
errima. Gaur egun audientziak programa  
baten etorkizuna baldintzatzen duela diote  
adituek. Zenbat eta ikusle gehiago, diru sar-  
rerek ere gora egiten dute, baina hori beste  
kontu bat da.

Telebistak **duen**  
indan'a izugarria da. Kasu askotan telebis-  
tan zerbait ikusi eta gauzak horrela direla  
sinestarazi nahi digute. Ikusten denez egia  
da eta punto, ez dago bueltarik. Errealitatea,  
ordea, beste era batetakoia izan daiteke, irudi  
edo iritzi guztiak ez baitira era berean ager-  
tzen edo ezkututzen. Kontua zera da, ikusleek  
dena irentsi beharra, inork ez galdetzeko zer-  
gatik gertatzen den hau edo bestea, ikusle hu-  
tsak bilakatzea, pasiboak izatea, inolako kez-  
karik ez azaltzea. Zenbat aldiz pentsatu dugu  
inork ez duela inor zapaltzeko eskubiderik.  
Azken finean zapaldu egiten gaituztelako in-  
formazioa modu konkretu batetan ematerako-  
an. Programa haundi horretan argi eta garbi  
erakutsi ziguten nola erabil daitekeen telebis-

**Telebista ikusten ikasi  
egin behar da. Telebistak  
ametsezko mundu  
batetara eramaten gaitu.**

ta gauza bati gan'antzia eman edo kentzeko,  
gidoian azaltzen ez zen partaidea isilduz. Lor-  
tu, berriz, ez zuen isiltzea lortu. Zergatik ez  
zuten behar bezala notizia landu? Zeren bel-  
durra daukate? Ariketa interesgarria izan dai-  
teke albiste baten inguruan egiten diren trata-  
mentu desberdinak aztertzea. Beharbada sor-  
presa bat baino gehiago jasoko dugu, baina  
lasai, bi aldiz pentsatu eta bakoitzak aukeratu  
dezala benetan zuzena den edo ez erakusten  
digutena. Irudi eta soinuei buelta eman eta  
errealitatetik gertuago egongo gara.

Telebista ikusten ikasi egin behar da.

Telebistak ametsezko  
mundu batetara erama-  
ten gaitu. Dena ondo  
baino hobeto pentsatuta  
dago. Dekoratuak, ar-  
giak, musikak, kolore-  
ak, aurkezleak, hitz egi-  
teko era, arropak, ka-  
maren kokapena eta  
mugimenduak... Ele-

mentu guztien batuketak baldintzatzen du  
programa baten azkeneko emaitza. Gidoian  
baldin badago kontrolpean egongo da. Gi-  
doitik kanpo egonez gero, arazoak egon  
daitezke. Gainera, zuzenean emititzen bal-  
din badaude kontrola ez kontrolatzera hel  
daiteke. Natxo aspaldi joan zen, bere kan-  
tuak eta kontuak betikoak izanik, gaur egun  
ere, baliogarriak dira. Kontuz beraz, eraku-  
tsi nahi digutenarekin, beti ez da benetakoa,  
bakoitzak aukeratu dezala errimarekin zer  
egin. Ikusi eta ikasi.

## Birrak eta Barreak



# BaRREN



Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOLBAR

IT 943 74 41 12

Publizitatea:  
943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

[www.ihardun.com/barren](http://www.ihardun.com/barren)

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Eli Aizpuru
KAZETARIAK	Irati Agirreazaldegia, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
G ERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAELEAK	Ainhoa Andonegi, Altor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
EUSKAFIA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura Sailak eta  
Foru Aldundiak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



*gizarte-ekintza  
obra social*

**44 DANOBAT**

**45% GOITI**  
GRUPO DANOBAT

## Politiko kapitalisten izat dena da utopia

**G**ogoan al duzue 12-14 ordu lan egun eta hiru 8ak errebendikatzen zirenean: 8 ordu lotarako, 8 lanerako eta beste 8, gozatzeko.

Hura utopia bat zen. Lau alferren lanerako gogorik eza, alegia, politiko kapitalisten esanetan. Baina denborak arrazoia eman zigun eta zoro haizea eta utopia ez zirela frogatu zuen.

Beraien amets gaiztoek aurrera darrate, "lan eta aberastasun banaketa".

Denok dakigu Euskal Herrian deontzat adinako dirua eta lana dagoela (baita gehiago ere). Banaketa da oker dagoena, beraiek beraien poltsikoen etorkizunari begira horren alai egiten duten banaketa.

Horra! Zerbakiak ez dute gezurrik esaten. Iruzur fiskalaren % 11 rekin, Euskal Herrian langabezia dagoen pertsona bakoitzak 83.000 pta.ko gizar-te-soldata kobratzeko lain izango luke. Horretarako politika aurrekontu bat eta iruzurraren aurka eraginkorragoa den fiskalitate justuago bat nahikoa litzateke.

Proposamena: 2000. urtean, %1, 55.000 milioi pta; 2001. urtean, %2, 110.000 milioi pta; 2002. urtean, %3, 165.000 milioi pta.

Norbaiti 83.000 pta.ko gizar-te-soldata gehiegizkoa iruditzen bazaio, atera ditzala kontuak:

30.000 pta. erortzeaz dagoen altzaririk gabeko pisu bat alde zaharrear; 8.000 pta. ura, argia, zarama...; 1.500 pta. 15 litro esne (nahiko merke, labela-

koa nahi badugu...); 3.600 pta. 30 ogi, hilabeterako; 5.000 pta. fruta eta barazkialc; 15.000 pta, 8 egunetarako ollaskoa, 6 egunetarako arraina (merkeena), 4 egunetarako arrautzak patata frijituekin...; 3.000 pta. autobusa lana bilatzeko; 5.000 pta. arropa; 2.000 pta. garbitzeko produktuak ('Txinbo' beharko); 5.000 pta, fannaziako produktuak erosuteko.

Honen guztiaren garrantziaren eta behararen berrespen modura, azken aipamen edo kontu bat: Jendea janari eskean joaten da Gurutze Gorrira. Sines ten ez duenak joan eta galde dezala! Penagarriena ez da pobreak egotea, beraiek merezi dutena eskatzeko beldur izatea baizik. Hau, Udalak bizirauteko ematen dizkien pezeta urriak kendu ahal dizkielako da agian.

Denborak arrazoia emango digu!

**Myriam Onaindia**  
(Gutun Sozialaren Aldeko  
Plataformaren izenean)  
NAN 16264506

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **Izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**



KEXAK

- Emakume bat San Bartolome kaletik Plaza Txikirako kalezuloatik autoak pasatzen direla eta kexu da. "Debekatuta dago, baina obrak direla-eta auto gidariak bertatik pasatzen hasi dira autoekin . Ikastolatik bueltan ume asko ibili ohi da kalezulo horretatik eta oso arriskutsua da".



## ESAK



**Garblite  
Aranzeta**  
Estetizista

Joan den astelehenean, ekainaren 5ean, azaleko gaitzak detektatzeko doaneko azterketak egin ziren osasun zentroetan. Gero eta handiagoa da azaleko minbizia duen jende kopurua eta batez ere "melanoma maligno" delako gaitza zeinek duen jakitea ezinbestekoa da. Uda gainean dugu eta eguzkia inolako gabe hartzen du askok. Hori izan daiteke azaleko gaitzak sortzeko arrazoietakoa bat. Guk **Garbiñe Aranzeta** estetizistarengana jo dugu azaleko gaixotasunei buruz eta azala zaintzeko egin behar ditugun gauzen inguruan hitz egiteko.

**Nahiko zaintzen al dugu gure azala?** Urte batzutatik ona ohiturak aldatu dira eta informazio gehiago dagoenez, jendea mentalizatzen ari da eta piskana azala zaintzen ahalegintzen da.

**Eguzkiak kalte egiten al dio azalari?** Norberaren azalari dagokion protekzioarekin eta neurrian hartuz gero, ez da kaltegarria. Poliki-poliki hasi behar da, lehenengo egunetan ordu erdirekin nahikoa da, beti ere kontutan hartuta eguzkiak indar gehiena eduki ohi duen orduetan hartzea ez dela komenigarria, eguerdian, alegia. Hemen eguraldi eguzkitsua gutxitan egiten duenez, jendeak egun horietan ordu asko ematen ditu eguzkitan eta hori da kalteganía.

**Eta UVA izpiak?** - Eguzkiarekin bezalaxe, nola hartu da kontua. Onera egunero hartu beharrean, egun batean hartuz gero hurrengoan atsedean egitea da, eta urte guztian Uva izpiak hartzea ere ez da ona. Erraz erretzen direnentzat gomendagarria da eguzkia hartzen hasi baino lehen sesio batzuk hartzea. Neguan azala estalita egon ohi da eta eguzkiak azal zuriak errazago erretzen ditu.

**- Zein dira azaleko gaitzik ohikoenak?** - Deshidratazioak eta mantxak. Ozone geruza kaltetuta egotea omen da horren arrazoietakoa bat. Bestalde, guk ikusi ez arren azaleko minbizia gero eta jende gehiagok daukala entzuten dugu. Hemen ezin dugu horrelakorik igarri, baina zerbait arraroa ikusiz gero, sendagilearengana joateko esaten diegu bezeroei.


**- Azala behar bezala zaintzeko zer egin behar dugu?** - Eguzkia hartzeko, babesteko krema gogorrek ematea da onena. Jendeak uste du zenbat eta babes-krema altuagoa eman ez duela kolore beltzaranik hartuko, baina hori benetan ez da honela izaten. Kremak babestu egiten du azala ez erretzeko edo mantxak ez ateratzeko. Sarritan udan bakarrik babesten gara, baina udaberriko eguzkia kaltegarriagoa da, gogorragoa.

**til**

**Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabaiaaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 Ee 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

**E4E11<sup>4</sup>**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**



# Biarda 1a Elartea

*50 urte musika doinuei lotuta*

*BIAR DANA MUSIKA ELKARTEAK 50. URTEURRENA BETEKO DU DATORREN UZTAILAREN 25EAN. EGUN SEINALATU HORRI BEGIRA HAINBAT EKINTZA ANTOLATU DITUZTE. BESTEAK BESTE, DATORREN DOMEKAN, HILAK 11, UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA FUNDAZIOAREN LAGUNTZAREKIN MUSIKA ETA DANTZA IKUSKIZUNA ESKAINIKO DUTE PLAZA HANDIAN. ELKARTEKO BAZKIDE ETA HERRITAR GUZTIAK DAUDE GONBIDATUTA JAIALDIRA. EKINTZA HAUEK GUZTIEK, NOLA EZ, MUSIKAREKIN ZERIKUSIA IZANGO DUTE, MUSIKAREKIN LOTURA ZUTEN HAINBAT BAZKIDE BILDU OSTEAN SORTU BAITZEN BIAR DANA ELKARTEA. ELKARTEKO ZENBAIT BAZKIDEREKIN HITZ EGIN OSTEAN HONAKO ERREPORTAJE HAU OSATU DUGU.*



BIAR-DANA ELKARTEKO ZUZENDARITZA

**1950**

urteko uztailearen 25ean sortu zen ofizialki Biar-dana Elkartea. Aurrez, lagun talde batek bilera bat egin

zuen Elkartearen nondik norakoak zehazteko eta barne-araudia erabakitzeke. Honako hauek dira lehenengo bilera hartan parte hartu zutenak: Eduardo Iriondo, Eulogio Estarta, Juan Bautista Juanena, Jose Maria De La Cruz, Antonio Usabiaga eta Jose Maria Etxaniz. Dena dela, Elkartea sortu zuten bazkide fundatzaileak 44 izan ziren. Horietatik bi baino ez dira bizirik geratzen; Jose Arrillaga eta Juan Garate (hain zuzen, bi bazkide hauek ohorezko intsignia bana jasoko dute domekan, hilaren 11n). Geroago, lehenengo zuzendaritza batzordea osatu zu-

ten. Handik atera zen lehenengo presidentea, Eulogio Estarta Landa, alegia.

## MUSIKARI LOTUTA

**G**araiko lege baten arabera Elkar-tea gastronomiko guztiek ekintza bat antolatu edo gai baten inguruan eratu beharra zeukaten. Mttsikarekin lotura zuten hainbat bazkide bildu zirenez, ez zuten birritan pentsatu beharrik izan eta musika sustatzeko asmoz Biar-dana Musika Elkar-tea sortu zuten. Urtean zehar ez dute jarraikortasuna duen ekintza zehatzik antolatzen, baina 50 urtetan talde asko ekarri dituzte. Angel Fernandez de Jauregi elkarteko presidenteak esan digunez, "Amigos del ar-

te" Iruñeako orkestra izan zan ekarri gendun lehenengo taldea. Odeoi Antzokian eskaini zaben kontzertua. Donostiako orfeoia. ToIO-sako Leidor... eta beste hainbat etotTi ziatt gero". Bestalde. Elgoibarren musikarekin zerikusia duten ekintzak antolatzen cliren bakoitzean heraiengana jo ei dute antolatzailleek laguntzarik behar izanez gero. "Tanborradan parte hartzen zabenak elkartera etortzen zian arropaz aldatzera eta baitxa afaltzera ere. Berdin gertatzen da kanpotik etorri izan diazen koru edo orkestrekin ere. 120 pertsonentzako bazkari-xak prestau izan ditzugu. Udaletxiak ekartzen ditxu aktuazio danak, haina gu euren egonaldixa ahalik eta atseginena izan dadin saiatzen gera".


## LEKU ALDAKETA

**G**aur egun Ubi-tarte Plaza, leian dago El-kartea, baina hasieran Santa Ana kalean, Udaltearen ondoan zeukaten lokala. Elkarteko bazkideek esan digute: "1970. urtean aldatu ginen egoitza berrira. 500.000 pezeta kostatzaigun. Garai hartan bazkide bakoitzak 500 pta. ordaintzen zituen



urtean. Lehenengo urteetan, berriz, 10 pta. ordaintzen genituen". Bazkide kopuruari dagokionez, 131 bazkide ditu gaur egun, "askoz gehiago ez dira sartzen" aipatu digute. Bestalde, duela urte gutxira arte egun seinalatueta bakarrik sartu zitezkeen emakumeak Elkartera. Zuzendaritzakoek aukeratzen zituzten egunak eta emakumeak bazkideren bat lagun zutela bakarrik sar zitezkeen. Gaur egun emakumeek libre dute sarrera, baina sukaldean ezin dezakete lanik egin.

## BITXHIERUAPRI



Ikarteetan giro ona izaten da nagusi eta beraz, baita adarjotze ugari ere. Elkarteko bazkide bitxi **E**gaten berri ernan digute bazkide batzuk (izena ezkutuan gordetzeko eskatu digute). "abestia gustatzen jakon lagun bat zakagun. Abestia gustatiaz gain, abeslari ona izatiaz harm agertzen zan. Ahots indartsua zakan eta oso ozen abesten zaban, baina berak hala ez pentsau arren, ez zakan belarririk musikarako. Hori dala-eta askok ilia hartzen zioten". Gehien zirikatzen zutenarikoa Jose Zubiaurre "Valle" omen zen, 25 urtez Elgoibarko Musika Bandako zuzendaria izandakoa. "Vallek oso ondo abesten zabala esaten zion, baina egunen batian soziedadia apurtu hihar zigula horren ozen abesten jarraitzen bazaban. Behin "Vallek" txantxa bat preparau zaban. Afaltzeko kazuelita batzuk prestau zitxun eta soka

hatekin bata bestiakin lotu. Ondoren, gure abeslariarl "Cantar del Aniero" ahesteko esan zion, eta hau gustura hasi zan kantuan. Hala zabillega Vallek sokatik tira ein eta kazuelita guztiak jauzi zian bata bestian atzetik. Orduan, Vallek soziedadia apurtu behar zigula ohiukatzen zion. Abeslarixa erabat zurbil eta harrixuta geratu zan kazuelitak bere erruz jauzi zialakuat". Azaldu digutenez pasadizo honek ez zizkion kanturako gogoak kendu eta beti bezain ozen abesten jarraitu zuen, Maalatik cre kantuan entzuten jakola esaten zioten batzuk zirikatze eta hera puztu eitzen zan, bere ahots bolumenaz harro". Bestalde, musikazale asko izan art'en, afalostean kantatzeko afizioa galtzen joan dela aipatu digute, "lehen ohituria zauan, baina gaztiek ez dabe kantuan eitxeko atiziva gorde".

1950 2000



## 50. urteurreneko egitaraua

### EKAINAK 11, igandea

10:00 Herriko duItzaineroekin kaIelira

11:00 Udal Musika Banda eta Udal Txistulari taldearen kalejira

**1 2:00** Musika eta Dantza ikuskizuna

- Haritz Euskal Dantzari Taldea
- Herriko Dultzaineroak
- Inazio Bereziartua M.E
- Itxaropena Abesbatza
- Parroki Abesbatza
- Udal Musika Banda
- Udal Txistulari Taldea

*Egunean zehar Juan Garate eta Jose Arrillagari elkartearen sortzaileei ohorezko intsigniak banatuko zalzkie*

### EKAINAK 24, larunbata

**1 9:45** "Kanta Cantemus" Abesbatza, Parrokian

### EKAINAK 25, igandea

**1 2:00** Hildako bazkideen aldeko meza (Parrokian)

**1 4:30** Anaiarteko bazkaria Biar-dana Elkartean

• **Alxuhdamaika eta GAZ-Tren udalekuetan izena emateko epea oraindik zabalik dago**

Elgoibarko Izarrako Atxiti-txiamaika eta GAZ-T aisialdi taldeek udalekuak antolatu dituzte 2 urtetatik hasi eta DBH 4ra arteko ume eta gazteentzat. Udaleku irekiak. Elgoibarren izango dira, itxiak, berriz, bixan, Pa,saian, Atxondon, eta Bidarra eta Belagua artean. Lasarte, Durango eta Arrasateko lagunak egin ahal izango dituzte udalekuetan. Aubixako bigarren txandan, Arrokaundietan, Orion eta Euskal Herria zeharkatuz egingo den ibilaldian oraindik Iekuak daudela gogorarazi nahi dute arduradunek. Gaztetxoek oporretan lagun berriak egin eta origi pasatzeko aukera ezin hobea izango dute udalekuetan. Informazio gehiago nahi duenak telefono honetara dei dezake: 943 74 16 26 (Eli)

• **Ezker Abertzaleak hatasunari huruzko eztahaida prozesua jarri du marbum**

Eztabaida hauen helburua ezkertiar guztientzako inetodo bat sortzea da eta gai hau urte-hetean landuko dute. Ezkertiarren nahia egungo momentu politikoa egokitzea eta erakunde wional bakarra eratzea da. Elgoibarren, lehen asanblada ekainaren 14an izango da, arratsaldeko 19:30ean Kultur Etxean. Bileran honako puntuak jorratuko dituzte: herriko batzorde eragilearen aurkezpena, prozesuaren aurkezpena, agiriaren edukia, eztabaidarako ardatzaren proposamena eta tnetodologia, eta Elgoibarko ordezkariak asanblada nazionalerako. Asanbladara gonbidatuta daude ezkertiar eta abertzale sentitzen diren elgoihartar guztiak.

**Eusko Jaurlaritzak Deba Ihaiaren ufal arazoak konontzeko obrak egingo ditu**


San Pedro auzoan egingo dituzten lanek 288.700.000 pezetako

**H**errian Deba ibaiarekin dauden arazoak ikusita, Udaleko ordezkariak Alvaro Amann kontseilariarekin izan ziren San Pedro auzoko uholdeen aurkako lanak hasteko moduan daudela adierazteko. Eusko Jaurlaritzak 288.700.000 pezeta emango ditu lan hauek aurrrera eramateko.

Udalaren aginduz egindako azterketa baten arabera, arazoaren arrazoia errekararen zabalera da; leku batzutan estuegia baita. Ondorioz, euri asko egiten duenean ura pilatu egiten da eta honiek ufalak eragin ditzake. Horretarako, ibai aldamentan pilatutako lurra kenduko dute, eta Lerungo industrialde alboan dagoen lurzati bat ere.

**Pasabide berria**

Bestalde, urak ibaian dituen trabak kentze aldera, Udalak Lerungo zubi zaharra botatzea erabaki du. Horren ordez, San Pedroko azken etxeetatik duela gutxi au-



*Zubi berriak luzeran 50 metro izango ditu eta zabalera 4 metro.*

zotarrentzat berritutako lokalera bitartean, pasarela bat jarriko dute. Zabalera 4 metro eta 50 metro luze izango ditu. Zintzilikako zubi berria Eusko Jaurlaritzak ordainkluko du, guztira 77.397.000 pezeta. Honi, pasarela eraikiko den lurren erosketari gehitu behar zaio. Kontseilariarekin izandako bileran Melitongo zubitik Goiko Errotara doan tartean uholdeak saihesteko dagoen proiektua ere aurkeztu zuten Eusko Jaurlaritzan.

**300 lagun inguru izan ziren Durangoko PPko zinegotziaren erailketaren aurillako kontzentrazioan Jendea ordu laurden batez egon zen Udaletxe aurrean**



Joan den astelehenean, hilaren 5ean, 300 lagun inguru elkartu ziren Plaza Handian Durangoko PPko zinegotziaren erailketaren aurka protestatzeko eta biolentzia gaitzesteko. Jesus Maria Pedrosa Urquiza joan den igandean,

ekainaren 4an, hil zuten Durangon eta horrelako heriotza bat gertatzen den guztietan kontzentrazio isila egin ohi da Udaletxe aurrean. Ordu laurden batez bertan egon ostean, txalo zaparrada batekin amaitu zen kale agerraldia.



## Inazb Bereziartua Musikeskolako 8 dantzari Euskadiko "Neskahtena" Soinu Zaharren Txapelketan izan dira

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musikeskolako sei neskek Euskadiko "Neskahtena" Soinu Zaharren Txapelketan hartu dute parte. Elisabeth Benito, Ainara De Pedro, Ane Garziandia, Amaia Otero, Cynthia Pazmirio eta Eire Vila dantzariak 12 eta 15 urte bitartekoetan aritu dira. Maiatzaren 14an Legazpin izandako finalera 15 dantzari iritsi ziren, horien artean 4 elgoibartar. Finala jokatu ostean, bigarren, laugarren, bosgarren eta zazpigarren postuetan sailkatu ziren. Lurdes Odriozola irakasleak adierazi digunez, "maila ona erakutsi dute gure dantzariak, eta ez dugu zalantzarik elgoibartarrok dantzari trebeak izango ditugula etorkizunean".



## Herritarrak Oskorrirekin batera kantuan aritu ziren Herriko Antzokian

Joan den asteazkenean, maiatzaren 31n Oskorri musika talde ezagunak "Oskorri & the pub ibiltaria" ikuskizuna eskaini zuen Elgoibarko Herriko Antzokian. Euskal kantu tradizionalak abestu eta jo zituzten, eta taldekideez gain, Antzokira inguratutakoek ere beraiekin batera abestu ahal izan zuten. Letra jarraitu ahal izateko pantaila berezi bat jarri zuten, gainera. Bertaratutakoek kantuan une goxo bat pasatzeko parada ezin hobea izan zuten.



## Herri Eskolako Ikasturte amaierako jaialdia

Herri Eskolako ikasleen jaialdia izan zen joan den ostiralean Herriko Antzokian. Bi urtetik hasi eta 6. mailara arteko ikasleen saioak ikustera, gurasoak, lagunak ikasleak eta irakasleak bertaratu ziren. Guztiek giro onean antzerki, dantza eta abestiez gozatzeko aukera izan zuten eta baita ikasleen ahalegina txaloz saritu ere. Ikasturtea lanean pasa ostean ongi pasatzen ere badakitela erakutsi zuten gaztetxoek.



## Ikastolako gazkixoak Debarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketan

Ikasturte guztian Edurne Lasa irakaslearen begiradapean antzerkiak prestatzen ibili ondoren, Ikastolako DBH1 eta 2ko ikasleek Debarreneko Eskolarteko XVI. Antzerki Erakusketan hartu dute parte. DBHlekoek 'Mireni laguntzen', Nekane Aranzamendi eta Arantza Mujikaren antzezlanak eskaini zuten. DBH2koek, berriz, Agustin Amianoren 'Diruak sendatuko du dena' obra eskaini zuten.



## Pilar Ikastetxeko Gurasoen Eguna

Gurasoen Eguna egin ohi dute urtero Pilar ikastetxekoek eta aurtengoa ere jadanik egin dute ospakizuna. Ikastetxeko jolastokian futbol partiduekin, eskulaneekin eta jokoekin ongi pasatu ostean, bazkaria eta afaria izan zituzten. Ondoren, 'bingoa' izan zen eta bat baino gehiago poltsikoak ongi beteta itzuli zen etxera, afal ondoreneko dantzaldia bukatutakoan.

Azaleko arazoak aztertzeko ikerketa egiten hasi dira adituak Europa mailan. Eguzkia da gaitz askoren eragilea.

# Konturatzen al zara eguzki gehiegi hartzearen arriskuaz ?



**LURDES GARCIA**  
22 urte, ikaslea

Konturatzen naiz, baina ez diot kasurik egiten. Ez dut protekzio kremarik ematen. Ahal dudan eguzki gehien hartzen dut, eta gainera, ordurik txarrean.



**PILAR ARRESE**  
40 urte, etxekoandrea

Geruao eta gehixao. Etxekoak azal zurikuak gera eta errespetua diogu euzkixari. Kremiak babestuta ibiltzen gera, dudarik gabe. Halere, ez gera oso euzki zaliak.



**MARI PAZ ARKAUZ**  
46 urte, etxekoandrea

Bai. Neuk ez dot euzkirik hartzen ez jatalako gustatzen, urte asko dia ez naizela hondartzara jua. Baina mendira juaten naizenian beti ematen dot kremia.



**AITOR INTSAUSTI**  
30 urte, tek. elektronikoa

Jende askok arriskua dagoela jakin arren ez du kasurik egiten. Nik ahalik eta eguzki gutxien hartzen dut, gehienez ordu erdi, eta hartzen dudanean, krema pila batekin.



**JESUS ALRERDI**  
61 urte, errepresentantea

Bai, beixu besterik ez dao urtian-urtian azaleko kantzerra zenbat ari dan ugaltzen. Andriari ere kontuz ibiltzeko esaten diot. Ni euzkitxan ibili eitxen naiz, egon ez .



**MANUEL MARTIN**  
56 urte, espezialista

Bai. Ez dut eguzki askorik hartzen, eta arriskuaz konturatu arren, hondartzan paseatzeko ere ez dut sekula kremarik eman. Baina oraingoz eguzkiak ez dit kalterik egin.

11:01/41-XO  
**ROCK-KAFEA**  
San Frantzisko, 41 . Tel. 943 74 39 25

**INTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
San Roke, 30 behea. 943 74 36 52 - 74 27 89  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK • BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ. ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
- IZENA EMATEAN 7oi OEKO BEHERAPENA

9414(4 rpty .l,t,lel e

~ 11

**tem6416 letertelk,**

**ARRAÑAGA**  
T OESKOL A  
Tel: 943 74 10 11



**A**

ste honetako erretratu zaharra **Juan Jose Araolazak** laga digu. 1958.ekoa da eta bertan agertzen direnak Koro Parrokialeko kideak dira. Honako hauek dira, beheko lehenengo ilaratik hasi eta ezkerretik eskumara:

Lehen ilara: **M. Angeles Cortabitarte, M.Luisa Bedayo, Josefina Peñalva, Begoña Gabilondo, Conchita Santolaya (t), Ascensio Bereciartua (t), Eduardo Bereciartua, Vicenta Ecenarro, Andresa Ecenarro, Maria Arriola (t), Andres Arteaga eta Jose Elcoro (t).**

Bigarren ilaran: **Valentín Ansola (t), Silvino Gabilondo (t), Julita Gabilondo, Ana Mari Loyola, Isabel Aizpitarte, Luis Urteaga (t), Marivi Juaristi, Paco Muñoz (t), Ma Carmen Araolaza, Felix Ansola, Virgilio Velaseo eta Tomas Garcia (t).**

Hirugarren ilaran: **Isaac Azpiazu (t), Hipolito Gabilondo (t), Angelita Zabaleta, Matilde Zubiaurre, Mila Galdos, Nieves Iriondo, Arancha Iriondo, Jose Zubiaurre, Ana Aizpitarte, Luz Abascal (t), Francisco Javier Bereciartua, Mari Paz Gabilondo, Antonio Azpiazu (t), Jose Ignacio Corta, Miguel Sanchez, Manolo Mugica (t), Julian Ansola eta Ricardo Muniain**

Laugarren ilaran: **Ladis Elorza (t), ezezaguna, Jose M. Eguren (t), Juanito Armendia, Javier Berasaluce, Jose Ma Escos, ezezaguna, Pedro Ulacia (t), Patxiku Etxeberria (t), Juan Jose Araolaza, Canuto Gabilondo (t), Ricardo Araolaza (t), Jacinto Astiazaran "Usurbil" (t), Bartolo Osoro (t), Jose Ansola (t), Teodosio Corta (t), ezezaguna, Ignacio Bereciartua (t), Ignacio Arizmendiarrreta, Julian Oteiza (t), Luis Ansola (t) eta Moises Aguirre.**

Bosgarren ilaran: **Jose M. Igartua (t), Alberto Epelde (t), Leoncio Gabilondo (t), Jesus Gabilondo eta Jose Zuazubizcar.**

# ue T7 Inlitate jatak

wiean aulkituko catuzu jaiak hasteko osalat2th onenak

## ATERPE



San Roke, 5 - Tel: 943 74 25 95

## ESTAZIO TABERNA

Eguneko menuak Asteburuko menuak



San Inazio, 9 • Tel. 943 74 34 14

## BASARTE



Basarte, 4 • Tel./Faxa: 943 74 34 26

## GABI



Nafarroa enparantza • Tel. 943 74 12 30

## BASARTE

### TRINITATEETARAKO MENU BEREZIA

*Trini perretxiko anítez eta pasta freskoz  
egindako entsalada epela.*

*Itsas Trinizapoa olio errearekin  
edo Orein solomoa Trin«oiearekin  
Txokolatez bustitako sagar Trinikrepe beroak*

*Kafea eta ardoa*

**3.500 pta.**

TRINITATEETATIK AURRERA  
KARTA BERRIA IZANGO DUGU.

## GORBEA


Berezitasunak:  
Fritaak, arraina eta txuletoia.



Santa Ana, 10 • Tel: 943 74 05 80

# BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 65. GEHIGARRIA



**ed. te**

Emakume batek esaten dio auzokoari

— Diru gehiago irabaztearren, senarrak lana ekartzen du etxera gauean egiteko.

Eta zureak?

— Ez diote uzten.

— Zergatik?

— Trenbideak garbitzen dituelako!



# Jakitunen eskutik

## Zer ezkutatzen da ikasleen emaitza eskasen atzean?

**E**skola-porrota gurasoak asko kezkatzen dituen gaia da, eta baita ikasleei sufriarazten diena ere. Gurasoek sarritan ez dute ulertzen beraien seme edo alabak ikasketetan herren ibiltzearen zergatia eta emaitza txarren errua ikasleei leporatzen diete maiz modu desegokian. Gaztetxoek etorkizunak kezkatzen dituelako izan ohi da hori. Gurasoek uste dute haurrak notelak ez badira alperkeria dela ez ikasteko arrazoa eta gehiago ikas dezaten presioa da erabiltzen duten metodoa: zigorrak, eskolaz kanpoko ikastaroak... Horrek guztiak nekatzen ditu, bai seme-alabak eta baita gurasoak ere. Gainera, emaitza ez da beti gurasoen gustukoa izaten. Hori gertatuz gero, gurasoak buruari bueltaka hasi eta benetan emaitza txarren atzean beste arrazoiren bat egon clajtekeela pentsatzen hasten dira.

Demagun ikasle batek ikasturte amaieran lau ikasgai gainditu gabe utziko dituela. Ulertzekoa da emaitzak etxera eramateko beidurrez egotea. [zan ere, guraso gehienek garrantzi handia ematen diete eskolako kalifikazioei. Udan eskolak hartu beharko ditu eta gainerct ezingo da oporretara joan. Baina ez

du ulertzen zergatik gertatu zaion aurten horrelakorik. Orain arte piskanaka ikasturte guztiak gainditu ditu, baina aurten ez da ikasgaietan kontzentratzen eta ikasitakoak ez dio nahi beste balio.

### Porrotaren arrazoiak

Suposizio hori etxe askotan ikus doitekeen egoera da eta eskola porrotak arrakastak bezalaxe bere arrazoiak ditu. Gehienontzat ezezagunak dira arrazoiak, baina sentimenduek zeresan handia dute arazo honetan. Gurasoen atentzia deitzeko nahiak ikasgaiak suspenditzera eraman dezake gartetxo bat. Ikasle askok uste du emaitzek pertsonak berak baino garrantzi gehiago dutela, baina uste hori sarritan ustela izan ohi da.

Gurasoek errua leporatu

beharrean lagundu egin beharko liekete haurrei. Horretarako porrotaren arrazoiak zein diren jakiten saiatu beharko gara. Beraz, 'alperria', deitu beharrean, onena seme-alaben aldamenen eseri eta ikasketekin laguntzea da. Ikasturte amaieran gainditu gabeko ikasgaiak gutxiago izango dira, edo agian dena gaindituko du, eta oporretara lasai ioan ahal izango da, bai ikaslea eta baita gurasoak ere.

Gurasoen atentzia deitzeko nahiak ikasgaiak suspenditzera eraman dezake gartetxo bat

## Zer iritzi daukazu ... vzokr ~ ..... buruz?



GmA14 i~erv),,;. 4.4 t4A44. 4444144 04,4 '41,444,  
1-4414 Wittyvvyw4h. 4<<a4 1144444 comm,

ANTXON SEGUNDO, 9 urte



1ti.;4z.zio43,441430.4 1444, 44.

AINITZE ANSORREGI, 6 urte.



t141-444 t.oh3.44 Itz44, tit,Z4"4 Iolf hth 444-44 ,04/0, 01,44smi).4  
o4.

IBON ONANDIA, 11 urte



**AITE  
CLAZA 113AL  
10 urte**

- 1- Lagunekin.
- 2- Amama hil zanian.
- 3- 'Dos en noche de brujas' ikusi naban telebistan.
- 4- Espagetiak tomatearekin
- 5- Andereñoa.
- 6- Leonardo Di Caprio.
- 7- Lagun bati aterkia ezkutatu nion.
- 8- Ahal den gehien eta ahal bada osasuntsu.

## Galde debaide

- Zeinekin egiten duzu amets?
- 2- Noiz egin zenuen negar azken aldiz?
- 3- Zein da ikusi duzun azken pelikula?
- 4- Gogoko janari bat.
- 5- Zer izan nahi duzu handitzean?
- 6- Nor da munduko neskarik/mutilik politena?
- 7- Zure azken bihurrikeria.
- 8- Zenbot urte bizi nahi zenuke?



**ILAS  
L1A  
urte**

- 1- Nire anaiarekin.
- 2- Orain dela asko, belaunean mina hartu nuenean
- 3- Maskara pelikula.
- 4- Amak prestatutako lentejak.
- 5- Pintorea, koadroak egiteko.
- 6- Leire, nire eskolako lagun bat.
- 7- Anaiarekin etxean jolasean nenbela kortina bota genuen .
- 8- Askok, 100 urte-edo.

## Zer da...? ...\*\*\*111

### JCITS MUSCZ 11 urte



Andre zahar bat da, kobazuloetan bizi dena. Eltze handi batean sorginkeriak egiten ditu.

### ANDON ICIOLA 2 urte



Aintzina-aintzinan kobetan bizi izan ziren pertsonak.



Erratz gainean ibiltzen den pertsona bat botere magikoak dituen, eta oso zatarra dena.

### MALIA GALAI 7 urte



Mamua bezalako pertsona bat da.



Magia egiten duen pertsona da, eta zeruan hegan ibiltzen da bere erratzarekin.

### ILLART ULAIN 7 urte



Sudur luzea, grano asko dituen, gaiztoa eta usain txarrekoa da sorgina.



# Denborapasak: ezetz asmatu!

**1.** Elgoibarko zein eraikuniza ezagun da hau?



**2.** Zer gaidetu diegu?



**NEREA  
ZUBIARREMENTERIA  
7 urte**


"Ez dut inoiz irakurtzen, baina begiratzekotan telebistan zer dagoen jakitea gustatuko litzaidake. Albisteak oso gutxitan irakurtzen ditut."

**ENEKO SALEGI  
9 urte**

"Kiroletakoren bat. Realak liga irabazi duela adibidez. Irakurtzen ditudan albisteak istripuei buruzkoak eta Mendaroko berriak izaten dirall."



**3.** Binan'binan berdinak dira. Eikartu itzazu



**4.** Asmakizunak

- Fraile pilo bat goian nahiz behean, janaria xehatzen didate nik lanik egin ez dezadan.

— Erraldoi bat baino handiagoa antena bezain airosoa, egun osoan erretzen eta tabakorik ez du sekula erosten.

— iendeak maite nau jendeak desiratzen nau ondo zaintzen nau baina hala ere herioak eramango nau.



# „dzqthitttrate jatakG,„

gt<qe(th autkttuko dttuзу jatak hasteko osalatqtk onenak

## HEMENDIK

Berezitasuna k:  
Erretakoak  
Kazuelatxoak  
Olagarroa



Pedro Muguruza, 20 • Tel. 943 74 25 00

## TOLETXE



Pedro Muguruza 8, behea • Tel. 943 74 19 48

## HERRI-GAIN

Berezitasunak:  
Arraina eta okela errea.



San Pedro auzoa, 4 - 943 74 30 40

## TXANALA

Berezitasunak:  
Txitxarroa, zapua eta sahieskia parrilean



Boinuetxeko Zumardia, 5 - Altzola • Tel. 943 74 43 46

## IBAI ONDO

Berezitasunak:  
Entsalada hotz efa epelak  
Bertako okela eta arraina  
Etxeko goxoak



Giza eskubideen enparantza • Tel. 943 74 26 27

## TXARRIDUNA



Ermuaranbide, 1 - Tel. 943 74 04 90

KENSINGTONek AURKEZTEN DU:

# IKASFUN.

GUZTIZ  
BERRIA

## UZTAILEKO IKASTAROAK

ADINA	MAILA
6-8	Hasi berriak
9-11	Oinarrizkoa
12-13	
14-16	Ertaina

Ordutegia: 9:30etatik 13:30etara

## INGELESA - FRANTSESA\* - ALEMANA\*

Denbora libreko ekintzak  
Ingetesa egoera errealetan  
1 Lehiaketak eta txapelketak  
1 Kirola  
1 Argazki rally-ak  
Ekintza artistikoisortzaileak

\* Eskaeraren arabera

49,,u eta U-z *rya dup/*

KENSINGTON  
P. Muguruza etorbidea, 8  
Tel. 943 74 02 36/ 74 35 12  
E-posta: [direccion@kensington-sl.es](mailto:direccion@kensington-sl.es)

## SAN JUAN AFMIA e(ainck 23 barixakua'

- Entsalada mistoa
- Perretxiko, ganba eta berakatz freskoen errebueltoa
- Entrekot-a guarnizioarekin
- Toletxe postrea
- Kafea
- Ardoa (caña, ela ca.,titto dc Ai er), sagardoa eta ura

2.500 pta.

EARTELAK SALGAI

TO  
LI  
TXE 4



21:30e.

*Iosu Mugerza San Migel Bailarako Belaustegi base-  
rrian jaio zen. 13 urte beste-  
rik ez zituela sukaldari lane-  
tctn hasi zen Donostian. Ga-  
rai hartatik hona geratu ga-  
be ibili da eta sukaldaritzar-  
en aitzakian leku asko bisita-  
tu ditu. Baina jaioterria ez  
du sekula ahaztu eta bere  
jaiotetxea Belaustegi base-  
rria berreraiki eta dotore ja-  
rri ostean, jatetxea ireki zuen  
orain urtebete. Asteburu hau  
ospakizunetarako izango du  
Iosuk; batetik, jatetxearen  
urteurrena da, eta bestetik,  
Sanmigeldarren egunean  
auzotarrek omenaldia egin-  
go diote. Aukera hau apro-  
betxatu dugu Josurekin ber-  
ba egiteko.*

u-  
ger-  
za  
  
CA  
O

# "San Migel bailarari bizitza eman dio gure jatetxeak"

**- Nola sartu zinen sukaldaritzan munduan?**

Beti izan dut gustuko sukaldaria, eta 13 urterekin Donostia joan nintzen lanera. Handik Madrilerara eta gero kanpora, Japoniara, Mexikora...toki asko ezagutu ditut.

**—Zer dela eta atzerrirako joera hori?**

- Beti ikastera eta beste sukaldaritzan mota batzuk ikustera joan izan naiz, baita kultura ezagutzera ere. Asiako sukaldaritzan esaterako, asko gustatzen zait, beraien kultura, jateko modua. Handik hartutako ideiak hemengo sukaldaritzara moldatzen saiatu naiz. Edozein lekutara joan eta gauza berriak ikasten dira, gustuko badituz, gero nire sukaldaritzan erabiltzen ditut.

**—Zuretzat zer da sukaldaritzan?**

Dena. Goizetik gauera arte lanean egoten naiz eta sukaldaritzan ez nagoenean ere ho-

rretarako prestatzen aritzen naiz. Lan hau profesio izan beharrean bizitzeko modu bat da. Lanbide honek nire denbora guztia hartzen du. Batzutan pentsatzen dut hobe nukela gustuko ditudan beste gauza batzuk egiteko astia izatea. Baina hasiera da eta hasiera guztiak gogorrek direnez, aurrera egin behar da ahal den moduan.

**—Belaustegikoa baino lehen izan zenuen zure jatetxe propioa Madrilen, ezta?**

Bai, lau urtez eduki nuen jatetxea Madrilen. Txikitxo zen eta jatetxe baten funtzionamendua ikasteko modu ezin hobea izan zen. Hura jolas zen oraingoaren aldean. Belaustegi handiagoa ezezik, proiektu serioagoa ere bada. Baserria berritzeko diru asko inbertitu dugu, eta nola edo hala ordaindu egin behar da.

**—Urtebete pasa da jatetxe zabaldu zenutenetik. Zer**

**moduz joan da urtea?**


- Urtebeteren ostean oso pozik gaude. Lan handia egin dugu eta oraindik asko daukagu egiteko, baina oro har jate-  
txeak martxa hartu du, badauzkagu bezeroak... Hala ere, lehen egiten nituen hainbat gauza ezin ditut orain egin, lan asko baitaukat. Esaterako, ezin naiz sukaldaritzan erakustaldi askotara joan. Dena den, aste honetan bertan Alemanian izan naiz Nafarroako produktuen promozio be-  
rezi bat egiten.

**- Zein sukaldaritzan mota egiten duzue Belaustegin?**

- Denetarik piska bat egiten dugu. Sukaldaritzan pertsonalizatua egiten dugu merkatuari begira. Urtaro edo denboraldi bakoitzean karta aldatzen saiatzen gara; negurako ehiza, udarako plater freskoagoak... Gauza tradizionalak berriekin eta modernoekin konbinatzen ditugu, dena sofistikatua izan ez dadin. Niri egiten dudana gustatzen zait, agian gauza desberdinak ere egingo nituzke, baina ingurura begiratu beharra daukat, non nagoen, alegia.

**- Auzotarrek omenaldia egingo dizute asteburuan.**

Ez nuen horrelakorik espero eta sorpresa izugarria izan da. Auzotarrek detaile polita izan dute nirekin eta ongi pasatuko dugu. Auzoan ez zegoen horrelako gauzarik eta itzuli, jatetxea ipini eta auzoari bizitza piska bat eman diogu. Kanpotik jende asko etortzen da eta horiek San Migel bailara ezagutzen dute eta hori auzoarentzat oso positiboa da. Beraz, neurri batean merezitako omenaldia dela esango nuke. Bihotzez eskertzen diet nirekin gogoratu izana.



## "Txusko Memohala" 3. Enduro Txapelketa

### GD[10] Leiaristi beteranoetan eta Gorka Garate junior[11] izan dira irabazleak bigarren urtez jarraian



*Efulak: lokaOik: domekad Afbítacirín jokatu- zen probaren ikusgarritustrna tireagotiliuten.*

zendomekan, hilaren 4an, Albitxuriko inguruetan. Euskadiko Enduro xapelketarako proba puntuagarrian 70 motorzalek hartu zuten parte, tartean 9 elgoibartarrek. Euskadiko Txapelketa 7 probaz osatuta dago eta Albitxurikoa denboraldiko hirugarrena izan zen. Guztira 5 mailatan lehiatu ziren motorzaleak; senior, trofeo senior, junior, trofeo junior eta beteranoak. Trofeo izena daramaten mailetan ibilbidea zertxobait errazagoa da, trialerarik eta saltorik gabekoa, alegia. Elgoibartarrak ezin hobeto aritu ziren eta 4 herritarrek podium-a zapaltzea lortu zuten. Jon Leiaristik irabazi zuen beteranoen mailako proba eta Gorka Garatek, berriz, junior mailakoa. Bi elgoibartar hauek iaz ere garaipena lortu zuten bakoitzak bere mailan. Honako hauek izan ziren elgoibartanen ailkapenak.

### -ELGOIBARTARREN SAILKAPENA-

#### 111 SENIORRAK ■

3. Aitor Osoro
4. Manuel Alvarez
7. Juan Ignacio Babarro

#### • TROFEO SENIOR ■

2. Aitor Urain

#### ■ JUNIORRAK ■

1. Gorka Garate

#### ■ TROFEO JUNIOR ■

6. Roberto Alonso
7. Aitor Aierdi
8. Urtzi Etxabe

#### ■ BETERANOAK ■

1. Jon Leiaristi
4. Luis Outumuro
5. Jose Ramon Urresti

#### • Bidoturisten

### O irteera eltainaren 11 n

CC ■■■■■■■■■■ rko "Lagun" Ta1-  
deak antolatuta, datorren domekan, hilaren 11n, izango da XXIII. zikloturista irteera.

- Goizeko 9:00etan Txankakua zubitik abiatu eta honako ibilbidea egingo dute txirrindulariek. Ibilbide luzea: Elgoibar, Deba, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, Milloy, Markina, Etxebarri, Isua, Eibar, Soraluze, Bergara, Angiozar, Intxorta, Kanpazar, Elorrio, Abadiño, Durango, (Urkiola aukeran), Berriz, Areitio, Eibar eta Elgaibar. Guztira 140 km. dira. Ibilbide motza, berriz, honakoa izango da: Elgoibar, Deba, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, Milloy, Markina, Etxebarri, Isua, Eibar, Elgeta, Bergara, Soraluze eta Elgoibar. Guztira 108 km. Nahi duen edonork har dezake parte.

## 47 domina banatu ziren Finalista Egunean

J.Karlos Larrañagak 100 mendi igotzeagatik jaso zuen garalkurra



J Joan den domekan, hilaren 4an, Finalista Eguna ospatu zen San Pedron Morkaiko Mendizale Elkartek antolatuta. Goizean goiz meza nagusiarekin eman zioten hasiera eguneko ekitaldiei. Ondoren, eguerdi partera, domina banaketari ekin zioten. Jon Peli Uriguen, Morkaikoko Presidenteak, eta Palco Iriondok, Euskal Mendizale Federakundeko Presidenteak, banatu zituzten dominak mendizaleen artean. Guztira 47 laguni eman zitzaizen domina: 21 laguni 10 menditara igotzeagatik, 15 laguni 15 menditara igotzeagatik; 20.000 eta 40.000 metroko kategorian 14 laguni, eta, azkenik, 100 mendiren kategorian, pertsona bakar bati, Juan Karlos Larratiaga Etxebeniari, alegia. Juan Karlosek 4 urtetan Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako 100 gailur zapaldu dituelako jaso zuen saria. Ondoren, San Pedro jatetxean bazkaria izan zen.

# Ilur Va lurg

# taldeak Espainiako Txapelketan du parte a Coruñan

Estatuko 8 talderik onenen aurka neurtuko dituzte indarrak

Igaibarko 'Zur Ta Lur' taldeak Espainiako Areto Futbol Txapelketa jokatzeko txartela eskuratu zuen pasa den asteburuan. Izan ere, 'Gasteizko Iraultzaileak' taldearen aurkako kanporaketan bi partidua irabazi zituzten. Lehenengo Olaizaga Kirolegian jokatu zuten, larunbatean, eta 8 eta 1 irabazi zuten. Gasteizen jokatu zuten bigarren partidua domekan, eta hau ere batere arazorik gabe irabazi zuten, 0 eta 6. Emaiza hauei esker, gaurtik (hilak 9) igandera bitartean Espainiako Txapelketa jokatu dute A Coruñan. Guztira 8 taldek har-



*faz lortu zuten bigarren postua errepikatzen ilusioz joan dira elgoibartarrak Galiziarra.*

tuko dute parte txapelketan, bi multzotan banatuta. Elgoibartarrak Gaztela Leoi, Gaztela-Mantxa eta Aragoiko txapelak aurka neurtuko dituzte indarrak. Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek jokatu dute nala. Jose Ramon Uriarte taldeko presidentek esan digenez ilusioz gainezka joan dira Galizia aldera "aurrekontu eta kalitate handiko taldeak aurkitu ditugu, baina ia izko bigarren postua eskuratzeko gogoia eta aukerak dauzkagu. Gainera, teoriari talderik indartsuenak beste multzoan daude, Galiziako taldea, ia izko txapelak, adibidez".



## Elgoibarko 13 eskubaloijokari deitu ditu Gipuzkoako Selekzioak

'Sanlo Elgoibar' eskubaloitaldeko 13 jokari konbokatuta ditu Gipuzkoako Selekzioak. Infantil eta jubenil nesken mailako 6 jokari eta kadete mutilen mailako 3 jokari hartuko dute parte Euskadiko Txapelketan datorren ekainaren

I Oean eta 11n. Miriam Lizarralde, Saioa Izagirre, Eneritz Gonzalez eta Ane Larrañaga kadete mailako selekzioak deitu ditu. Jubenil nesken Gipuzkoako Selekzioak, berriz, Nere Aranberri, Amaia Polo, Ainhoa Uriarte, Maite Uriarte, Ainhoa Gonzalez eta Itziar Gerrikabeitia elgoibartarrak deitu ditu. Azkenik, mutilen kadete mailan, Aitor Azkue, Julen Ansola eta Gorka Garate hartuko ditu selekzioak.

## • 13tua txakurren Sarlar larunbatean, hdaren 10eany jokatu da

'La Union' Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta, ehiza txakurren 'Trinitate Sari Nagusia' jokatu da bihar, hilak 10, Albitxuriko zelaietan. Kontirtenteko eta ingeles arrazako txakurrei zuzenduriko txapelketa da honako hau. Goizeko 9:00etatik aurrera galeperrak ehizatzen saiatuko dira hainbat lekutatik etorritako partehartzaideak. Txapelketa egunean bertan izena eman ahal izango da. Bestela 907 49 86 22 telefonora deitu.

## • Nuna Revueta eta Ana Ettanizek Euskadiko Atietinno Txapelketan hartu dute parte

Aire Libreko Euskadiko Atletismo Txapelketa Basaurin (Bizkaia) jokatu da asteburuan. Bertan izan ziren Nuna Revuelta eta Ana Etxaniz atleta elgoibartarrak, eta emaitza onak eskuratu zituzten. Nuriak 100 eta 300 metrotako lasterketan hartu zuen parte. Probarik laburrenean 7. postuan amaitu zuen (13" 98), eta 300 metrotako lasterketan, berriz, 5. postuan (46"). Bestalde, Ana 6. postuan iritsi zen helmugara 600 metrotako lasterketan (1'46").

<b>El rit A li 1f Z': It 1(</b>
<b>Areto futbola</b>
Zur Ta Lur <b>8-</b> Iraultzaileak I (Atitenom.)
<b>Esku bilota</b>
<b>Lagunak Pilota Txapelketa</b>
Guenetxea <b>6</b> - Arribillaga <b>18</b> (Benj.)
Mendibil <b>12</b> - Arribillaga <b>18</b> (Benj)
E. Zulaika <b>18</b> - Mugerza <b>3</b> (Aleb.)
Ugalde <b>12</b> - Garai <b>18</b> (Aleb.)
A. Mendibil <b>18</b> - Moreno <b>5</b> (Aleb.)
K. Arrizabalaga <b>18</b> - iturrino <b>0</b> (Aleb.)
Gomez <b>7</b> - J. Larrañaga <b>18</b> (Aleb.)
Sigmako Txapelketa
Osoro/Rojo <b>22</b> - X. LoiolalArrillaga <b>20</b>
Karral/ Lander <b>22</b> - Otaño/J. Loiola <b>16</b>
EsnaolalBalzola <b>22</b> - GerrikalAlzibar <b>6</b>
X. Lolola/Arrillaga <b>22</b> - Karral/Lander <b>8</b>
AnjeVEneko <b>22</b> - Osoro/Rojo <b>21</b>
Karmel/Egaita <b>22</b> - GerrikalAlzibar <b>7</b>
<b>A G' Crlf D) A</b>
<b>Esku Pilota, Siqman</b>
<b>Asteartea, 13</b>
<b>19:00</b> Osoro/Rojo - Ulazia/Arizmendi
<b>19:30</b> Ansola/Agirrebefia - Karmel/Egaria
<b>Osteguna, 15</b>
<b>19:00</b> Ubera/Katei - Otah/J. Loiola
<b>19:30</b> Esnaola/Balzola - Urtubia/Lazarobazter

## Maskarada taldeak Ikaro anizeslana eskainiko du hilaren 16an, Herriko Antzokian

Juan Carlos Perez kantariak zuzeneko abestiekin girotutako lana da

TA5EKNA

Peciro Muguruza 8, behea  
Tel. 943 74 19 48

ekainak 15,  
eguna  
21:00

MIKEL TELLERIA kantaria

bokata + kaña  
500 pta.

Udateko Euskara eta Kultura Bartzordeek antolatutako "Euskal Kantagintza"; egitasmoaren barnean, "Ikaro" izango dugu Herriko Antzokian egiteko asmoa duten lau musika saioetatik bigarrena, Oskorrirena izan baitzen lehena. "Ikaro", "Maskarada" antzerki taldeak antzestu eta Juan Carlos Perez kantariak girotutako lana da. Ekainaren 16an, ostirala, gaueko 10:30etan hasiko da.



Sarreren prezioa 700pezetakoa da eta Kultur Etxean aurrez eskura daitezke.

'Ikaro' pertsonaia mitologikoaren inguruan musika elektronikoa erabiliz antzerki lanari nortasuna eman dieten hamar kanta konposatu ditu Itoizko kantari ohiak.

### Musika, mugimendua eta irudia

Arte adierazpen ezberdinez osatutako muntaia da; antzerkia, dantza, zuzeneko musika, bideoa eta proiektzioak uztartzen dira bertan. Berezitasunetako bat musikak, mugimenduak eta testuak eta gidoia baino garnunzi handiagoa edukitzean datza. Horrela, ikus-entzunezkoen azken joerekin bat egiten dute.

Gidoiaren haria Ikaro gaztearen bizi tzari lotuta dago. Egungo gazte asko bezala, Ikaro bere laberintoan bizi da, pertsona eta irudiak errepikatuz osatutako egunerokotasunean. Baina pertsona, irudi eta laberinto beniak agertzen diren heinean, bizitza aldatuko zaio. Horrela, laberintoa irudietan eszenifikatuz, lortu dute "Maskarada" taldekoek, oso modu librean, arlo musikala eta teatrala lotzea. Sarrerak auzer eeros daitezke Kultur Etxean, goizez (7:00etatik-15.00etara) eta prezioa 700 pezetakoa da.

## Uxue Albertiñ elgoibartarrak Xabier Allunibe Bertso Paper Lehiaketa irabazi du

laz hirugarren postua lortu zuen lehiaketa berean

Ekainaren 1ean Uxue Albertiñ Azkoitiko IX. Xabier Munibe Bertso Paper Lehiaketa irabazi zuen. Saria 14.000 pta. eta oroigarria izan ziren eta gus-tura asko jaso zituen Uxuek. Ez da lehenengo aldia horrelako lehiaketetara aurkezten dena. Laz, hirugarren postua lortu baitzuen Azkoitian bertan. Aurten berriz, beste poesia eta prosa lehiaketa bat ere irabazi du, Azkue saria, hain zuzen ere.



"Nire zeldatik" izenburupean preso baten sentimenduak adierazi zituen Uxue Alberdik.

### Sei bertso guztira

Bertso paper lehiaketa honetarako "Nire zeldatik" izenburupean idatzitako bertsoak aurkeztu zituen Bertan preso baten sentimenduei buruz sei bertso idatzi zituen.

Sariak banatu ondoren Imanol Lazkano bertsolariak zoriondu zuen bertsotan. Saria ere Bertsozale Elkarte Presidentea den azpeitiar hertsolari ospetsuak eman zion.

enic


SAN JUAN AFARIA

TXARTELAK SALGAI

TXARTELAREN PREZIOA: 2.500 pta.

SALTOKIAK: \_\_\_\_\_

Toletxe taberna  
Elgoibarko Izara K. E.




ELGOIBARKO IZARRA

# ulso Olaselo Garate (1901-1982)



- 1901eko utriaren 29an jaio zen San Pedro bailara-ko "Sakoneta" baserrian. Baserri hau desagertuta dago gaur egun. "Olaso" kanposantuaren azpialdean zegoen, "Sigma" tailemaren amaieran. Etxe atarian bide arriskutsua zegoen, auto ugari pasatzen baitziren, Beranduago "Lauko" deitu izan zitzaion baserriari. Lau anai-arreba izan ziren, bera bigarrena.
- Eskola Publikoan egin zituen ikasketak 12 urtera arte. Etxean ere lana egin behar izaten zuen. Hoirrela, baserriko lanetan, baratzean, ukuiluan, soroan, e.a, jardun ohi zen.
- Mutikoa zelarik, "San Martin Hnos" lantegian hasi zen, sutegiak egiten. Enpresa hau Santa Klara kalean zegoen. Gaur egun desagertatuta dago. San Pedroko, San MigeIgo, Barinagako eta beste zenbait lekutako erromerietara ere joan ohi zen.
- Etite aurrean zuen ibaian arrain pila ederrak harra-patutakoa zen. Behin baino gehiagotan lagunei ere oparitu izan zizkien hartutako arrainak.
- Auzolanean gari jotzen ibili zen. Tailerreko lana eta baserrikoa eginaz hainbat denbora igaro zuen. Soldadutza egitetik libre geratu zen.
- Lantegiz aldatu eta "Zuazubizear" era, estazio ondoan zegoen lantegira, joan zen. 1936ko gerratean, Barinagako "Asabel" basenian egon zen lanean. Barinagan ezkondu zen 1940an bertako "Olia Txiki" baserriko Juanita Alzibararixxuluagarekin eta "Lauko"n bizi izan ziren. Hiru seme alaba izan zituzten: Jose Agustin, Ana 15/1' eta TomtIs. En'ainak eta suhiak: Esther Epelde, Gregorio De Las Heras eta Rosa Cid.
- "Nartzi" bezala ezaguna zen. Gizon jatorra, bizia eta alaia benetan. "Salbador" herrnandadekoa zen. Bere zaletasunen artean ehiza, peffetxiko biltzea eta Santa Eufemia, San Antonio edo Arratera joatea zeuden. Plaza Handiko zubi ertzean zegoen "Txankakua" tabernara ere joan ohi zen. 1982ko abenduaren 3lan hil zen 81 urte zituela.

Juanito Gorostiza



ROSQ Del  
Ray

RI sa Del  
e y k  
26 urte ditu.  
Duela 5 urte  
Tenerifera jo-  
an zen opo-  
rretara, eta  
kasualitatez,  
hotel batean  
hasi zen lane-  
an. Gaur egun  
Playa de las

Americas herriko hotel batean ari da lanean. Tenerife kontraste handiko ir-  
la dela azaldu digu, "iparra eta hego-  
aren artean bi ordu daude autoz, bai-  
na erabat ezberdinak dira. Iparraldea  
euritsuagoa eta berdeagoa da. Hego-  
aldeak, berriz, desertua dirudi, Saha-  
rako desertutik datorren areak alergia  
asko sortarazten ditu. Jendea ere des-  
berdina da, "hasiera batean oso ire-  
kiak direla dirudite, baina ezagutu  
ahala hasierako inpresioa balcarrik  
dela konturatzen zara". Atzerritar as-  
ko daude, "Alemania eta Ingalatetta-  
ko atzerritar asko bizi dira. Hori dela-  
eta giroa artifizialagoa da. 'Poteoaz'  
asko gogoratzen naiz". Leku eta pai-  
saia ikusgarri asko daudela esan di-  
gu, "itsasertze batzutan baleak eta  
delfinak ikus daitezke eta Teideko  
parke naturala ikusgarria da". Irletan  
denbora asko daramaten guztiek goiz  
edo berandu penintsulara itzultzeko  
beharra nabari dutela azaldu digu,  
"oporak pasatzeko leku zoragarria  
da, baina bertan bizitzeko itogarria  
izan daiteke, mugitzeko lekua falta  
baita. Sei hilabetero bueltatzen naiz  
Elgoibarrera", Ihauteriak zoragarriak  
direla azaldu digu, "kalean bizi dituz-  
te jaiak, nola bizi duten azaltzea zai-  
la da, bizi egin behar dira".

411401k

VIAJES  
BILBACI EXPWS5

bidai agentziak  
babestutako atala

Foruen enparantza, 3  
Tel: 943 74 39 12

**PALSOKA**

Neska  
eta  
mutil  
gazteentzako  
oinetakoak

Zapata denda  
berria!

San Frantzisko, 20



%  
11<sup>1</sup>

Uffutira deitu gabe  
bertakook segituan  
konponduko dizugu  
igogailua

1 943 82 01 09

Faxa: 943 82 01 62

Indalezjo Ojanguren 2, behea

• 20600 EIBAR

## TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia ..... 943 032610  
 Planning-a ..... 943 742950  
 Alkoholiko Anommoak . 943740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622  
 Gurutze Gorria 943 743864  
 Mendaroko Ospitalea . 943 032800  
 Odol Emailak .. 943 743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .. 943 740442  
 PESA (Eibar) .. 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . 943 740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366  
 Udal Kirol Patronatua.. 943 744415  
 Kultura Zerbitzua. 943 742158  
 Mendaroko Udala... 943 756100  
 Ongizate zerbitzua... 943741008  
 Udaletxea ..... 943 741050  
 Udaltzaingoa ..... 943 741394

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ... 943 741626  
 Kiroldegia ..... 943 744415  
 Kontsumo Bulegoa ... 943 743088  
 Liburutegia ..... 943 743525  
 Musika Eskola .. 943 742145  
 Mintxeta ..... 943 744315  
 Parrokia ..... 943 740842  
 Postetxea ..... 943 741547  
 Gaztetxea ..... 943 743572

### ADINEKOEN ETXEA


San Lazaro Egoitza.. 943 740296  
 Zaharren Biltokia 943 740526

### IKASTETXEA

Haur Eskola 943 74 21 41  
 HHI (EPA) ... 943 74 08 80  
 Herri Eskola . . 943 74 08 79  
 I.M.H. .... 943 74 41 32  
 Institutua  
 Arreiturre 943 74 80 19  
 Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19  
 Ikastola ..... 943 74 44 41  
 Pilar Ikastetxea ..... 943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN ..... 943 74 41 12  
 El Oiario Vasco 943 74 40 73  
 El Correo Español.. 943 74 10 82  
 Zazpiki irratia .. 943 74 34 74  
 Egunkaria ..... 943 30 02 28  
 Gara ..... 943 31 69 99



9

ostirala

17:00 HARAGI GISATU  
**LEHIAKETA**  
 Jubilatuen **Biltokian**

22:15 ZINEA  
 "Biziaren arbola"  
 (Euskaraz)

22:30 DIAPOSITIBA  
**EMANALDIA**  
 Gaia: Islandiako trekking-a  
 Gaztetxean  
 Antolatzailea:  
 Gazte Asanblada

1

larun ata

13:00 TXAKURRAK  
**EHIZA JARRIAN**  
 Albitxurin  
 Antolatzailea: `La Union'  
 Ehiza eta Arrantza Elkarte

17:30 URRUZUNO  
**BAILARAKO JAIK**  
 Urruzuno bailaran

19:30-22:15 ZINEA  
 "Erin Brockovich"

11

igandea

9:00 ZIKLOTURISTEN  
**IRTEERA**  
 Txankakua zubitik  
 Antolatzailea:  
 Elgoibarko `Lagun' Taldea

12:00 BIAR-DANA  
**MUSIKA**  
**ELKARTEAren 50.**  
**URTEURRENA**  
 Musika eta Dantza  
 ikuskizuna  
 Plaza Handian (Euria  
 eginez gero, Kiroldegian)

11:30  
**SANMIGELDARREN**  
**EGUNAren HASIERA**  
 San Migel auzoan

18:45 GELATXO  
 Plaza Handian

19:30-22:15 ZINEA  
 "Erin Brockovich"

1

astele ena

22:15 ZINEA  
 "Erin Brockovich"

15

osteguna

15:00  
**IKUSENTZUNEZKOA**  
 "Danubio zeharkatzen"  
 (Euskaraz)  
 Hizlaria: Angel Cuerdo  
 Antolatzailea:  
**DEBABA** euskaltegia

20:00 HITZALDIA  
 Gaia: Luis Mazantini  
 toreatzailea  
 Hizlaria: Francisco **Teduri**  
 Kultur Etxean  
 Antolatzailea `Mazantini.'  
 Zezenzale Elkarte

21:00 KANTALDIA  
 Kultur Errota  
 Abeslaria: Mikel Telleria  
 Toletxe tabernan

16

ostirala

22:30 "IKARO"  
**IKUSKIZUNA**  
 Juan Carlos Perez kantaria  
 eta Maskarada  
 antzerki taldea  
 Herriko Antzokian

• ■ • II • •

ER 11 • • 111 • • • ffa ■ 111

11  
 NE  
 A



Zuzendaria: Steven Soderbergh.  
 Antzezleak: Julia Roberts,  
 Albert Finney, Aaron Eckhart.

## Brockovich"

Erin Brockovich (Julia Roberts) etsita dago. Bi aldiz dibortziatu da, hiru seme ditu, eta ez du lanik ezta dirurik ere. Auto istripu baten ondoren abokatu bat ezagutuko du, eta erabat aldatuko zaio bizimodua, abokatuak lana eskainiko baitio bere `bufee'-ean. Lanean hasi eta berehala, enpresa erraldoi bat hentxo bateko edateko Ura isurkin toxikoz kutsatzen ari dela bilatuko du kasualitatez. Hau ikusink henitarrei jakinaraziko die eta guttien artean enpresa salatu egingo dute.

■ R • 11 III • • • III

III ■ • • 111 • • • ■ • IR • •



- **Mikel Telleria abesiarlaren kantaldia ostegunean, Toletxe tabernan**

Mikel Telleria Idiazabalgo abeslariak kantaldia eskainiko du datorren ostegunean, hilaren 15ean. Kantaldia Kuitur Errota programaren barruan kokatzen da eta Toletxe tabernan izango da. Gaur egun Gasteizen bizi den abeslaria orain dela hiru urte hasi zen taldearekin lanean (bost lagunek osatzen dute taldea) eta dagoeneko disko bat kaleratu dute. Mikelek egiten duen musika folk-rock edo rytln'n blues da, euskaraz beti ere. Bob Dylan, Lou Reed eta Van Morrisonen eragina du. Kontzertua gaueko 21:00etan hasiko da.

- **Ikastolaren Eguna bihar, hilak 10**

Ekainaren 10ean, zapatuan, "Ikastolaren Eguna" izeneko jaialdia antolatu du Elgoibarko Ikastolak ikasturte bukaera gisa eta eskolaz kanpoko jardueri amaiera emateko. Ikastolaren hezkuntz komunitatearen partaide guztiak daude jaialdira gonbidatuta. Egitaraua honako hau izango da: goizeko 12:00etatik 14:00etara ate irekiak eta haurrentzako jolasgunea, arratsaldeko 14:00etan lagunarteko bazkaria eta arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara haurrentzako jolasgunea. Jaialdia arratsaldeko 19:30ak inguruan amaituko da.

- **Urruzuno bailarako jaiak bihar, hilak 10 hasiko dira**

Duela 4 une hasitako ohiturari jarraituz, Urruzuno bailarako bizilagunek jaiak antolatu dituzte. Honako hauek dira ekainaren 10erako prestatu dituzten ekintza nagusiak: arratsaldeko 17:30ean txaploak eta jaien hasiera. Ondoren, auzoko lokalean, meza. Arratsaldeko 18:30ean trikitilariak alaituko dute giroa, eta ordu berean, edari eta pintxoak banatuko dizkiete auzotarrek bertaratzen direnei. Azkenik, arratsaldeko 19:30ean haur jolasak izango dira.

- **Nahaste Borraste lasterketan izena emateko epea zabalik dago**

Kimetz Elkartek urtero antolatzen duen Nahaste Borraste lasterketa herrikoia ekainaren 21ean, asteazkenean, jokatu da. Izena emateko epea zabalik dago jadanik, interesatuek Kimetz Elkartera deitu (943 74 07 37) astelehenean ostiralera arratsaldeko 19:30etatik 21:00etara bitartean. Bestalde, Elkarteko zuzendaritza batzordetik adierazi digutenez, ekainaren 15ean, ostegunean, lasterketa prestatzeko bilera egingo dute, eta bazkideei azaltzeko deia luzatu nahi diete. Bilera arratsaldeko 20:00etan izango da Kimetzen.



- **Euskal Eskola Publikoaren jaira joateko autobusak**

Euskal Eskola Publikoaren jaira Donostian (Anoetan) izango da datorren ekainaren 11n. Elgoibartik autobusean joan ahal izango da, goizeko 10:00etan irtengo dira autobusak Plaza Handitik. Izena emateko Herri Eskolara edo Elgoibarko Izarrara joan. Nagusientzako prezioa 1.000 pta.koa da, eta 12 urtetik beherakoek 500 pta. ordaindu beharko dituzte.

## T X A N D A

### FARMAZIAK

- |    | Egunez     | Gauzez                           |
|----|------------|----------------------------------|
| 10 | Bidasolo   | Bidasolo                         |
| 11 | Bidasolo   | Bidasolo                         |
| 12 | Etxeberria | Etxeberria<br>(Santa Ana kalean) |
| 13 | Fernandez  | Fernandez                        |
| 14 | Yudego     | Yudego                           |
| 15 | Zabaleta   | Zabaleta                         |
| 16 | Etxeberria | Etxeberria<br>(Errosario kalean) |

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**J. IGNACIO FERNANDEZ**  
 HerTiko enparaniza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

11 igandea Doña Mercedes

# Etxebizitzak

- Alokairnan dagoen pisu bat nahi nuke. Presa dut. tr 943 74 30 25-677 86 48 48
- Deban etxea salgai, Mogel kalean. Hiru logela (bat teiatuaren kontra), bi bainu-gela, sukalde txikia eta egongela. Bertatik itsasoa ikusten da. Tr 943 19 21 98 Pepi
- Apartamentua alokagai Torrevejian, Hondartzatik oso gertu. rr 943 74 23 63
- Etxea salgai Errosario kaleko 24. zenbakian. 60 m<sup>2</sup>. Guztiz berritua. s 943 74 14 71
- Apartamentua alokagai Laredon, hondartza ondoan. \$ 943 79 52 80
- Pisma hartuko nuke alokairuan. IT 630 68 75 35 Oihana.

# Salerosketak

- Kanping denda saltzen dut. Bi logela, sarrera eta toldoa ditu. Bi edo lau pertsonentzat da eta muntaia errezekoa. Berri-herria da. z 943 74 05 37
- ◆ VHS Panasonie bideokamera salgai. Koloredun bisore-uptikoa. SP/LP titulazioa. Bideoarekiko konexioa. 2 bateria eta CA egokitzaila. Oso egoera onean. s 943 74 43 74
- Katu persak eta angorazkoak salduko nizkioketo pertsona arduratsua bati. Tr 609 94 69 40
- 6 hilabeteko artzai txakur alemana eta snauffer handia salgai, s 609 94 69 40
- Karro denda salgai, abanze eta osagaiekin. Is 943 74 33 61
- Labadora salgai. Prezio onean. zr 943 74 39 75. (Arrate.201006k aurrera deitu)
- Josteku makina bat erosiko nuke.tr 943 74 07 85 edo 943 74 14 25
- Txakurrak oparitzen ditut. Anzai txakur aleman eta euskaldunaren arteko nahasketa dira. Apirilaren 16an jaiotakoak.ts 943 74 16 05. Idoia.
- Bigarren eskuko eskusoinu bat erosiko tutke:Er 943 74 28 53. Aitor.
- Plater garbigailu berria salgai. Es-treinatua gabea.c 943 74 05 37
- Artzai txakur euskalduna, emea, 10 hilabetetako oparitzen dut, zaintz.erik ez dudalako.ir 943 74 38 91.
- Opel Kadett GS 2.1 gorria salgai. SS-AH: Konpetizioko esekidura. Egoera onean. s 943 74 21 99/943 74 40 69 Joxean.
- Bulegoko altzariak ditut salgai, berri-beniak: bi mahai, hiru artxtbo, faxetako makina bat eta bi aulkil. e 943 75 50 26/656 77 28 80

# Lana

• ESKAINTZA •

- Irakaslea behar dugu. Offieen ezagupen aurreratua eta Visual Basic menperatzen duena. 12. 943 74 08 58
  - Goiko Errota elkarte garbitzeko pertsona bat behar da. a 943 74 01 72.
  - Neska behar da abuztuan lan egiteko.rr 943 74 04 56 (Maria)
  - Emakumea behar da garbiketa lanak egiteko. s 943 74 10 03
  - Neska behar da tabernako barran lan egiteko. a 943 74 34 14
  - Esperientziadun kamarera bat behar da San Bartolome jaietarako.zr 943 74 37 71
  - Jostuna behar da arropa konpontzeko. Makinaz eta eskuz. josten dakienair 943 74 39 75 (Arrate. 20:00tik aurrera deitu)
  - Pertsona arduratsua behar da urte osoan zehar goizeko ortu hatzuetan bi ume zaintzeko. Euskaraz dakiena.m. 626 23 75 70
- ESKAERA •
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo gaisoak zaintzeko. Esperientzia daukat. Ts 943 75 62 57
  - D.L.H.ko lehen zikloko haurrentzat errepasoko klase partikularrak ematen ditugu tulan. a 646 36 10 33 Nerea.

# Agurrak

- Zorionak Maddi, deabrutxo, 3 urtetara iristear zaudelako. Zure ahizparen partez.
- Zorionak Estibaliz Morenori, ekainaren 8an 12 urte bete zituelako. 6. mailakoen partez
- Zorionak Ikastola C-ri, bai neska eta bai mntilei, Gipuzkoako finalerdietara iritsi direlako. Segi horrela. Aupa!!
- Zorionak Alazne Escuderori, atletiadetan, 60 in-tan lehena gertatu zelako. Ainhoa, Ibai, Leire eta Lararen partez. Hemendik aurrera gu ez gehiago ridikuluan utzi. Aupa Alazne!
- Zorionak Estibalizi, ekainaren San 12 urte bete zituelako. Itsaso, Lara eta Alazneren partez.
- Zorionak aitxitxa Luisi, gaur, hilak 9, urteak bete dituelako. Aneren partez. Muxu handi

# Oharra

Merkatu Ixikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.



• Zorionak Yolanda Liberali, gaur, ekainak 9, 30 urte bete dituelako. Familia osoaren partez.

• Zorionak Joanes. Zenbat 'ekainak 11' pasatu dira? Askot? "Mogulldn"? Haritzazu beste hainbeste muxu aita, ama eta Izaroren partez.



• Epa Carusso! Zure urtebetetze egunean zorionak. Zure beltza ranaren partez.

• Zorionak Ibare, Aitatxo, amatxo eta familiaren partez. Bost tirakada beiarritik eta muxu handi bat.




• Ainara, hainbeste lan eitxia ez da ona. Astelehenian behintzat hartuko dozu tartetxo bat gurekin egoteko, ezta? Zorionak eta muxu handi bat. Kuadrilak.

• Zorionak Maddi Mendibili, bihar, hilak 10, 3 urte beteko dituelako. Familia guztia eta bereziki, Ainhoa eta Danel anai-arreben partez. Ondo pasa eguna!



• Zorionak Elena Larizi, ekainaren 12an 6 urte beteko dituelako. Muxu handi bat familia guztia eta bereziki, Gorka eta Jon zure lagunen partez.

• Zorionak Ane Astigarra-gari ekainaren 1 2an urteak beteko dituelako. Familia osoaren partez. Ondo-ondo pasau potxola, merezi dozu-eta!



\*Zorionak Julia Nys Zabaletari, bihar, ekainak 10, 5 urte beteko dituelako. Zure lagunaren partez (Bekeka).



• Zorionak Joni, ekainaren 13an 2 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez., eta bereziki gmskien partez. Muxu handi bat.




• Sorghla piruliria erratzaren gainean Eibanik Mendarom doa Nereari belanitik tira egin nahian. Zorionak!

• Zorionak Juan Vegasi hilaren 3an urteak bete zituelako. Bere familiaren partez. Bereziki, alaba Amaia eta Laura.



◆ Zorionak Anutiari, hilaren 11 an 10 urtetxo beteko dituelako. ILTrnetX0 baten eta zure ahizpa potxolaren partez.

• Zorionak Miriam Beristaini, hilaren 5ean 10 urte bete zituelako. Ondo pasako zenuela espero dugu. Amona eta tia Mirariren partez.



# Zorionak Josetxu Andoni eta askoz gehiago bete ditzazula! Familiaren partez. Bereziki, gurasoak. Maite zaitugu!!!

• Zotionak Nerea Lazkanori, hilaren 7an 10 urte bete zituelako, Familiaren partez. Ondo pasa!!



• Zorionak poxpolin! ekainaren 11 an 4 urte beteko dituzulako. Muxu bat denon partez eta bereziki, Josuren partez.

• Zorionak Asier Agirregomez-kortari, hilaren 1 2an 5 urte beteko dituelako. Familia osoaren eta bereziki, Nekanen partez.



# BIKAIN

## AHOLKULARITZA

**BAZKIDE**

2000ko KIDEA  
{C.D. ELGOIBARI



2000. cottell 1107XI

Zafted Witatt

**BIKAIN**  
AHOLKULARITZA

FISKALA LABORALA « KONTABLEA

Antonio Arrillaga, 4 behea  
Tel. 943 74 45 57  
Faxa: 943 74 04 08  
20870 Elgoibar  
Gipuzkoa

▶ Aholkularitza eta kontsulta zerbitzua

Kontablea)

(Fiskala

(Lan arlokoa)

Ouridikoa)

Vierkatal arlokoa)

▶ Bideragarritasun planak

▶ Aseguruak

▶ Agentzia bidezko banka zerbitzua

# KULTURA

## IKARO



## MASKARADA

Juan Carlos Perezek ikuskizun honetarako espreski konposatutako musika entzuteko parada izango da zuzenean joko baitu bere taldearekin.



Kultura Saila  
eta Euskara Saila



Irail 11, 11,  
Dun 1111  
Zuzeneko MUSIKA,  
bideo 11 f. 11  
PROIEKTUO  
ULTIMATI  
IKUSKIZUNA



ekainak 16, ostirala  
gaueko 22:30ean  
HERRIKO ANTZOKIAN

# EUSKARA